## Sektorea – Sector 4 URLEGI - ANSESTEGI - ZOTALETA – IGUZKI

**Ia erabat Burdin Arokoa den megalitotegi honetan 36 harrespil, 4 harribakar, 6 mukuru ttipi eta bakarrik 2 trikuharri ikus daitezke. Estazio hau Urlegi eta Luruko Ateak harrespilekin hasi eta 7 kilometrotan, bizkarrez-bizkar eta lepoz-lepo agertzen zaigu. Bi trikuharri bakarrak alde honetako iparraldean aurkitzen dira, Iduzkimendin eta Meatseko lepoan hain zuzen.**

Zona casi exclusiva de la Edad del Hierro como lo atestiguan los 36 círculos de piedras, 4 menhires, 6 pequeños túmulos y sólo 2 dólmenes en ella existentes. Se extiende desde los círculos de Urlegi y el desaparecido de Luruko Ateak a lo largo de 7 km de lomas y collados. En la zona norte, en Iduzkimendi y Meatseko lepoa, se encuentran los únicos dos dólmenes del sector.

### ESKOSKO HARRESPILA-CROMLECH 115

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Amaiur.
**Goi** / Altitud : 665 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Edad del Hierro.

**Deskribapena : 8 harriz osaturiko harribaratza. Tumulu biribila, 6 m. diametro da eta 0,40 garai; ez da zilorik agertzen erdialdean. Harriak, hirutan, binaka dagozte, bertze bat bakarrik eta bakarrik ere haundiena. Harri landu hau 0,85 m. garai, 0,99 zabal oinarrian, 0,82 erdian eta 0,62 goitian, bai eta 0,28 m lodi alde batean eta 0,23 bertzean. Haundiaren ondokoa, sartalderuntz, 0,40 x 0,15 x 0,07; hauen aurrez aurre dagoena 0,30 x 0,20 x 0,10. Gainontzekoak ttallagoak dira. Harri haundiena Hego Sartaldera begira dago, bere zabalean.**
**Harri mota : Haundiena eta bertze gehienak hareazkoak, gainontzekoak kuartzo txurizkoak.**
**Egoera : Hagitz ona. Seinalizatu gabe. Harri guziak, berriki, garbituak izan dira.**
**Kokapena : Eskosko lepoko (edo Zimizta) sortaldean dagoen zelaian. Otsondotik Gorramendira doan errepidetik eta 4. kilometrora iritsi baino pixkat aitzinago dagoen Eskosko lepotik, eskuin eta goiti gan, xendaz 150 bat metro, agertzen den xelaian, eskuin aldean.**
**Historia: J. Cabodevillak eta I. Zabalzak aurkitu zuten, 1992ko Otsailaren 20an. Hasieran, harririk haundiena bakarrik ikus zitekeen eta agian zutarri bat edo baratze bat irudi zuen. Orain, norbaitek baimenik gabe garbitu ondoren ederki ikusten ahal da. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Círculo de piedras de 6 metros de diámetro y 0,40 de alto, no se ve depresión central. Las piedras que lo limitan son pequeñas y sobresalen poco sobre la tierra. La mayor mide 0,85 m. de alto, 0,90 de ancho en la base, 0,82 en la parte media,0,62 en la superior, 0,28 m. de grosor en una parte y 0,23 en la otra. La siguiente hacia el Oeste es de 0,15 m. x 0,40 x 0,07, y la que está clavada enfrente de esas dos, 0,30 m. x 0,20 x 0,10 de grosor. Las restantes son más pequeñas. La mayor está mirando hacia el Suroeste.
Material : La mayor de arenisca como la mayoría de las restantes, las demás de cuarzo blanco.
Estado : Muy buen estado. Sin señalizar. Las piedras del círculo han sido limpiadas.
Ubicación : En el collado de Eskosko o Zimiztako lepoa, a la derecha de la carretera que va desde Otsondo a Gorramendi, antes del km 4, a unos 150 metros a la derecha, en un llano o falso collado.
Historia: Hallado por J. Cabodevila e I. Zabalza el 20 de Febrero de 1992. Inicialmente sólo se veía la piedra más grande, dudando fuese menhir, aunque el pequeño túmulo delataba la presencia de un cenotafio. Ahora se puede observar después de que alguien lo limpiase sin permiso. No se conoce excavación.

Bibliografia:
**Oraino ez da argitara eramana izan**. No publicado hasta ahora.

**ESKOSKO HARRIBAKOITZA-MENHIR.** **116**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Amaiur.
**Goi** / Altitud : 665 m.
**Aroa** / Epoca : Zehaztugabea. Sin determinar.

**Deskribapena : Etzanik dagoen harri haundia; badirudi landua izan dela. Bere neurriak: 2,30 luze, 1,70 zabal, bere alde zabalenean, Hegoaldera begira dagoena; 1,70 zabal erdian eta 1,20/ 0,85 alderdi estuenean. Azkon baten puntaren itxura du. Lurretik agertzen diren aldeen lodieraren neurriak 0,37m. sortaldekoan eta 0,30 sartaldekoan dira. Ziuraski Urlegiko gaineko aldetik ekarri izana. Ipar-Hego orientazioa dauka, bere oinarri zorrotzetik zabalenera.**
**Harri mota : Bertako hareazkoa.**
**Egoera : Ona. Harria garbi dago. Lekuan belar fina; zuhatzik ez. Seinalizatu gabe.**
**Kokapena : Eskosko harrespiletik 20 metrora dago.**
**Historia : J. Cabodevillak eta I. Zabalzak aurkitua 1992ko Otsailaren 20an. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Monolito tumbado, con sus caras aparentemente refinadas, de 2,30 metros de largo y 1,70 de ancho en la cara orientada al Sur, y 1,70 de ancho en el medio y 1,20/ 0,85 en la zona más estrecha, y con forma de una punta de lanza. En cuanto al grosor, tiene 0,37 metros en la zona del Este y 0,30 en la del Oeste, siempre midiendo lo que sobresale de la tierra. Traída seguramente de la cima de Urlegi. Orientación Norte Sur.
Material : Arenisca.
Estado : Buen estado, la piedra aparece limpia. Sin señalizar.
Ubicación : a 20 metros del círculo del collado de Eskosko.
Historia : Encontrado por J. Cabodevilla e I. Zabalza el 20 de Febrero de 1992. No se conoce excavación.

Bibliografia :
**Oraino ez da argitara eraman**. No publicado hasta ahora.

**URLEGIKO TUMULUA-TUMULO** **118**

**Jabetza** / Propiedad: Baztan. Amaiur.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º 13' 21", Latit. 43º 13' 53".
**Goi** / Altitud : 670 m.
**Aroa** / Epoca : Eneolito-Brontze.

**Deskribapena : Harrizko eta lurrezko mukuru biribila 6 m. luze eta 0,30 garai da. Ipar sartaldetik apala oso. Erdian ziloa, ihiz betea.**
**Harri mota: Hareazkoa, eta kuartzo txurizkoa.**
**Egoera :Txarra. Seinalizatu gabe. Usategi baten ondoan. Harri mukuruko azaleko lur-belar geruza berriki garbitua izan da. Harri mukurua nekez ikus daiteke, gehiena ihiz estalia dagoelakoz. Kokapena: Urlegiko (Urrulegi, 1654 urteko kronikan) Ipar hegian, xelai txiki batean, errepidetik gailurrerako bidearen erditsuan. Urlegiko harribaretzetatik 150 bat metrotara, hegoaldera buruz mendian gora.**
**Historia : 1972ko Urriaren 29an, Aita Ondarrak aurkitu zuen. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Túmulo de piedras pequeñas que tiene 6 metros de diámetro y 0,30 de alto, estando muy rebajado por el Noroeste. En la zona central se ve un hoyo cubierto de juncos.
Material : Areniscas y cuarzo blanco.
Estado : Mal estado, sin señalizar, al lado de una palomera de caza. Tiene el túmulo degradado, hace un tiempo estuvo limpio de vegetación, ahora aparece cubierto de junco, sobre todo en su zona central.
Ubicación : Se encuentra en lugar despejado, en un rellano del monte Urlegi (Urrulegi, en las crónicas de 1654) en su cara Norte, enfrente de los cromlechs de Urlegiko lepoa a unos 150 metros y mayor altura .
Historia : Encontrado por Aita Ondarra el 29 de Octubre de 1972. No se conoce excavación.

Bibliografia :
Ondarra F. Nuevos monumnetos......1975.
Barandiaran I. Prehistoria de N..... 1984.
Ripa P. Monumentos meg......1990.

**URLEGI BIZKARREKO HARRESPILA-CROMLECH.** **119**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.Amaiur.
**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj. 2º 13' 21'', Latit. 43º 13' 53''.
**Goi** / Altitud : 670 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Edad del Hierro.

**Deskribapena: 27 harriz osaturiko biribila, 4,61 m diametro eta 0,35 garai da. Harriak txikiak dira, 30 zm. ingurukoak, eta mukuruaren barnean 5 harri koskor ere ba dira. Erdian, xilo edo sakongune bat ikus daiteke.**
**Harri mota: Kuartzo txurizkoa gehiena, hareazkoak ere ba dira.**
**Egoera: Ona. Seinalizatu gabe. Harri guziak ongi agertzen dira. Usategi baten ondoan. Belar finez estalia.**
**Kokapena : Urlegiko tumulutik zenbait metrora dago.**
**Historia : Aita Ondarrak ikusia zuen, nahiz eta datuak ez hartu, ez baitzen garbi ikusten; 2001eko ihauteri garaian elkarrekin bisitatu genuen, P. Arreseren laguntzarekin. Eta zalantzarekin jarraiki genuen, estalia zegoen eta. Handik urtebetera, norbaitek aitzurtu ondoren, harriak agirian utzi zituen. Datuak, 2003ko martxoaren 20an hartuak dira. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Círculo formado por 27 piedras pequeñas y de 4,61 metros de diámetro con un túmulo de 0,35 de alto. En el interior se ven otras 5 piedras así como una depresión.
Material: La mayoría de las piedras son de cuarzo blanco, algunas de harenisca.
Ubicación : A algunos metros del túmulo de Urlegi, entre éste y los cromlechs del collado.
Estado : Buen estado, sin señalizar. Todas las piedras se ven limpias.
Historia : Encontrado por Aita Ondarra, lo visitamos en la época de carnavales del 2001 junto a P. Arrese, pero al estar cubierto de vegetación se creaban dudas sobre su autenticidad. Un año después alguien lo "limpió" sin permiso, dejando a la vista las piedras del cromlech. Datos tomados el 20 de Marzo del 2003. No se conoce excavación

Bibliografia:
**Oraino ez da argitara eramana izan**. No publicado hasta ahora.

**URLEGI LEPOKO HARRESPILAK-CROMLECHS.** **120-126**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Amaiur.
**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj : 2º 13' 21",Latit: 43º 13' 53".
**Goi** / Altitud : 640 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Edad del Hierro.

**Deskribapena : Zazpi harrespilez osaturiko multzo ederra. Gehiago zirela badakigu, egun errepidea eta aparkalekua dagozten lekuan.**
**Kokapena: Otsondotik Gorramendirako errepidearen ezker aldean dagozte, 3. kilometroa pasatu ta 300 bat metrora. Inguru guzian ez da zuhaitzik. Errepide hau egitean I. deituriko harrespilari 2,50 metroko puska kendu zioten eta sartaldean zituen bere harri guziak .**
**Historia : I, II eta III Lopez Sellesek aurkitu zituen, 1957ko azaroaren 17an. IV-a Aita Ondarrak 1972ko urriaren 3an. Eta V,VI eta VII L. Millanek eta J.J. Otxoak 1984-ean. Ez da indusketarik ezagutzen. Leku hau 1654 urteko kroniketan Urrulegi izenarekin agertzen zen.**

Descripción: Hermoso conjunto de 7 cromlechs. Había más, pero al hacer la carretera a Gorramendi y la explanada los destruyeron.
Ubicación: El conjunto se encuentra a la izquierda de la carretera de Otsondo a Gorramendi, 300 metros después de pasar el kilómetro 3, y en zona desarbolada. Al hacer la carretera, al cromlech I le destrozaron 2,50 metros de su túmulo y todas las piedras que tenía en su parte Oeste.
Historia : I, II y III fueron encontrados por Tomás Lopez Selles el 17 de Noviembre de 1957. El IV, Aita Ondarra el 3 de Octubre de 1972. V, VI y VII L. Millan y J.J. Otxoa en 1984. No se conoce excavación. En las crónicas de 1654 el lugar aparece como Urrulegi.

Bibliografia :
Lopez Selles. Munibe 1973.
Ondarra F. Nuevos mon....1975.
Vegas Aramburu I. Estudios de arqueolo....1988.
Ripa P. Monumentos meg.....1990.

**Urlegiko harrespila - cromlech I.** **120**

**Deskribapena : Tumulu biribila, 12 metroko diametro, eta 0,90 m. garai da. Bertako 7 harrespiletetik haundiena dugu hau. Ingurua 28 harriz osatua, batzuk zutik, eta nahiko haundiak. Hona zenbait harriren neurriak : 0,85 luze, 0,77 zabal eta 0,42 lodi. / 1,20 x 0,55 / 0,67 x 0,69 x 0,29 / 0,40 x 0,50 x 0,21 / 0,35 x 0,40 x 0,13 / 1,37 x 0,40 x 0,19 / 0,52 x 1,01 x 0,19.**
**Harri mota : Bertako hareazkoak.**
**Egoera : Sartaldeko tumuluaren zatia Gorramendiko errepideko lanetan kendu zuten. Iratzeak gehiena estaltzen du. Gelditzen den zati haundia egoera onean dago.**

Descripción : Gran cromlech de 12 metros de diámetro y 0,90 de alto, siendo el mayor de todo el conjunto. Conformado por 28 ortostatos. Las medidas de algunos son: 0,85 de alto, 0,77 de ancho y 0,42 de grosor / 1,20 x 0,55 / 0,67 x 0,69 x 0,29 / 0,40 x 0,50 x 0,21 / 0,35 x 0,40 x 0,13 / 1,37 x 0,40 x 0,19 / 0,52 x 1,01 x 0,19.
Material : Areniscas del lugar.
Estado : A pesar de tener rota su parte que da a la carretera, es monumental y se conserva en buen estado. La mayoría cubierto de helecho.

| Urlegiko harrespila - cromlech II. | 121 |
|---|---|

**<u>Deskribapena</u>: I-tik metro batera, sortalderantz begiratuaz. Tumulua 4 m. diametro eta 0,50 garai da, dena laua. Erdian xilo arrastorik ez, bai ordea harri koskor bat lurrean sartua. Biribila 22 harrik osatzen dute, biren neurriak: 0,26 garai, 0,62 luze eta 0,40 zabal / 0,24 x 0,50 luze x 0,30 zabal.**
**<u>Harri mota</u> : Bertako hareazkoak.**
**<u>Egoera</u>: Ona. Iratze pixkat ba du gainean.**

<u>Descripción</u>: A un metro del cromlech I, hacia el Este. Círculo de piedras de 4 metros de diámetro y 0,50 de alto, llano en el interior, sin mostrar depresión central, en donde se encuentra una piedra clavada. Formado por 22 piedras clavadas en la tierra. Todas asoman poco, dos de ellas: 0,26 m alto, 0,62 largo y 0,40 de ancho / 0,24 x 0,50 x 0,30.
<u>Material</u>: areniscas del lugar.
<u>Estado</u>: Bueno. Lo cubre algo de helecho.

| Urlegiko harrespila - cromlech III. | 122 |
|---|---|

**<u>Deskribapena</u> : II harrespiletik oso hurbil da; hau 3,90m. diametro eta 0,30/ 0,40 m garai da eta 20 harriz osatua du ingurua. Erditsuan harri bat lurrean sartua, bertze batzuk ere tumuluaren gainean. Harririk haundiena 0,37 garai, 0,66 zabal eta 0,32 lodi da.**
**<u>Harri mota</u> : Bertako hareazkoak.**
**<u>Egoera</u> : Ona, hegoaldean mukuruko harriak agerian izanagatik. Iratzeak erdia estaltzen du.**

<u>Descripción</u> : Muy cercano cromlech II, tiene 3,90 metros de diámetro y su túmulo es de 0,30/ 0,40 m. de alto. Círculo formado por 20 piedras a la vista. En el centro aparece una piedra metida en tierra y otras encima del túmulo. La piedra mayor mide 0,37 de alto, por 0,66 de ancho y 0,32 de grosor.
<u>Material</u>: arenisca del lugar.
<u>Estado</u>: Bueno, sobre todo las piedras del Sur. Medio cubierto de helecho.

| Urlegiko harrespila - cromlech IV. | 123 |
|---|---|

**<u>Deskribapena</u>: II-etik metro erdira. Mukurua 4 m. diametro eta 0,40 garai da. Biribila 11 harriz osatua, baten neurriak: 0,38 luze, 0,24 zabal eta 0,24 garai, gainontzekoak ere antzekoak edo txikixeagoak izanik. Ipar sartaldeko harriak galduak edo lurpean ditu.**
**<u>Harri mota</u> : Bertako hareazkoak.**
**<u>Egoera</u> : Ona. Seinalizatu gabe.**

<u>Descripción</u> : A medio metro del II, con un túmulo de 4 metros de diámetro y 0,40 de alto. Formado por 11 ortostatos, tiene perdidas o no se ven las piedras del Noroeste. Una mide 0,38 metros de largo, 0,24 de ancho y 0,24 de alto.
<u>Material</u>: arenisca del lugar.
<u>Estado</u>: Bueno. Sin señalizar.

| Urlegiko harrespila - cromlech V. | 124 |
|---|---|

**<u>Deskribapena</u>: III harrespiletik 2 metrora dago. Tumulua 4 m. diametro eta 0,50 garai da. Biribila 11 harrik osatzen dute eta haundiena 0,81 garai, 0,65 zabal eta 0,19 lodi da. Gainontzekoak berdintsu edo txikiagoak dira.**
**<u>Harri mota</u>: Bertako hareazkoak.**
**<u>Egoera</u>: Ona. Iratzez estalia. Seinalizatu gabe.**

Descripción: a 2 metros del cromlech III. Su túmulo es de 4 metros de diámetro y 0,50 de alto. Formado por 11 piedras delimitando el círculo, la más grande de 0,81 metros de alto, 0,65 de ancho y 0,19 de grosor. Las restantes parecidas o menores en tamaño.
Material: arenisca del lugar.
Estado: Bueno. Cubierto de helecho. Sin señalizar.

| | |
|---|---|
| **Urlegiko harrespila – cromlech VI.** | **125** |

**Deskribapena: II eta III harrespilen aurrean. Tumulu biribila, zutik dagozten 11 harriz osatua, eta 5 m. diametro eta 0,50 garai da. Hiru harriren neurriak: 0,30 garai, 0,39 zabal eta 0,20 lodi / 0,22 x 0,39 x 0,15 / 0,37 x 0,35 x 0,20.**
**Harri mota : Bertako hareazkoak.**
**Egoera : Ona. Iratzeak estaltzen du. Seinalizatu gabe.**

Descripción : Enfrente del II y del III. Túmulo circular de 5 metros de diámetro y 0,50 de alto. Formado por 11 piedras. Las medidas de tres de ellas son : 0,30 metros de alto, por 0,39 de ancho y 0,20 de grosor / 0,22 x 0,39 x 0,15 / 0,37 x 0,35 x 0,20.
Material: arenisca del lugar.
Estado: Bueno. Cubierto por helecho y sin señalizar.

| | |
|---|---|
| **Urlegiko harrespila - cromlech VII.** | **126** |

**Deskribapena: Harrespil txikia, 2 m. diametro da eta biribila 10 harrik osaturik agertzen da, lurrean sarturik xutik, baina batzuk makurtuak. Ipar sartaldekoa 0,27 m garai, 0,36 m luxe eta 0,15 m lodi da. Sortaldekoa 0,17 m garai, 0,36 m luze eta 0,22 m lodi. Bertzeak, txikixeagoak, batzuk guti agertzen dira lur gainean. Mukururik ez da ikusten, bai ordea, erdian sakongunea.**
**Harri mota: Bertako hareazkoak.**
**Egoera: Txarra. Guzietarik hondatuena iduri du.**

Descripción: Pequeño círculo de 2 metros de diámetro, sin túmulo aparente y formado por 10 piedras, hincadas y en pie, pero algunas torcidas. La del Noroeste tiene 0,27 metros de alto, 0,36 de largo y 0,15 de grosor. La del Este 0,17 x 0,36 x 0,22. Las restantes son más pequeñas, viéndose muy poco. En el centro se ve una depresión o cavidad.
Material: areniscas del lugar.
Estado: Malo, el peor se conservado de todo el conjunto.

| | |
|---|---|
| **URLEGI LEPOKO HARRIBAKARRA. MENHIR.** | **127** |
| **Jabetza** / Propiedad : Baztan. | |
| **Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º13'21", Lat. 43º13'53". | |
| **Goi** / Altitud : 640 m. | |
| **Aroa** / Epoca : Zehaztugabea. Sin determinar. | |

**Deskribapena: Etzanik dagoen monolitoa, 3,70 m. luze eta 1,10 m. zabal, estuago sortaldean punta lehunduan akitzen baita, eta 0,60 m. lodi.**
**Kokapena : harrespiletatik 50 bat metrotara iparraldera buruz, bidearen ertzean.**
**Harri mota : Bertako hareazkoa.**
**Historia: Aspaldin ezaguna, neurriak J. Cabodevillak eta I. Zabalzak 2004. urteko udaberrian hartuak. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción: Monolito tumbado de 3,70 metros de largo, 1,10 de ancho en su parte Sur para acabar en punta, y 0,60 de grosor.
Ubicación: a 50 metros del conjunto de cromlechs de Urlegiko lepoa, hacia el Norte, en medio del llano.
Material: Arenisca del lugar.
Historia: Conocido de antes, medidas tomadas por J. Cabodevilla e I. Zabalza en la primavera del 2004. No se conoce excavación.

**LARRAKAGAÑA-AIZALEGIKO HARRESPILA – CROMLECH 129**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Amaiur-Arizkun.
**Koordenatuak** / Coordenadas: Lonj. 2º 13' 12", Latit. 43º 14' 14".
**Goi** / Altitud : 680 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Edad del Bronce.

**Deskribapena: Tumulua 0,30 garai eta 4,5 m. diámetro, eta biribila 30 harri ttallek osaturik. Luzeena 0,63 luze, 0,30 lodi eta 0,19 garai da; bertze bat 0,24 x 0,40 x 0,22 lodi; gainontzekoak txikixeagoak eta elkarren ondoan agertzen dira, biribila sortuz. Tumulutxoaren erdian, halako sakongunea bada.**
**Harri mota: Kuartzozko txuria.**
**Egoera: Ona. Seinalizatu gabe. Erdiko xiloak agian indusketa klandestino baten lekuko liteke. Garbia, belar fina nagusi, inguruan ez da zuhaitzik. Berriki, norbaitek harriak garbitu ditu.**
**Kokapena: Otsondotik Gorramendiko errepidean 3 km. ra iritsi baino lehen, lepotik ezkerraldera doan bide zabaletik 300 metro Aizalegiko leporaino. Handik 130 m. eskuin aldera, bizkarretik.**
**Historia: 1973ko Urriaren 12an, Aita Ondarrak aurkitua. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Túmulo circular de 0,30 metros de alto y 4,50 de diámetro, formado por 30 piedras a la vista. La mayor es de 0,63 metros de largo, 0,30 de grosor y 0,19 de alto; otra tiene 0,24 x 0,40 x 0,22. Las restantes son de menor tamaño. En medio del túmulo aparece una pequeña depresión.
Material : Cuarzo blanco.
Estado : Bueno. Sin señalizar. La depresión central, seguramente es señal de profanación.
Ubicación : Por la caretera de Otsondo a Gorramendi, en un alto antes del km 3, girar a la izquierda y 300 mt por pista hasta el collado de Aizalegi. En el cordal, 130 mt a la derecha.
Historia: Encontrado por Aita Ondarra el 12 de Octubre de 1973. No se conoce excavación.

Bibliografia:
Ondarra F. Nuevos monumentos meg.... 1975.
Ripa P. Monumentos megal....1990.

**AIZALEGI HARRESPILA - CROMLECH. 130**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.
**Goi** / Altitud : 725 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Hierro.

**Deskribapena: Harrespilaren biribila 4 metro diametro eta 0,30 m. garai da. Harri aunitzez osaturik agertzen da, denak txikiak eta lurrean finkaturik. Erdikaldean, sakongune apala agertzen da.**
**Harri mota : Kuartzo txurizkoak.**
**Egoera : Seinalizatu gabe. Garbi agertzen dira harriska gehienak.**
**Kokapena: Aizalegi edo Meatxeta bizkarreko tontorrik altuenaren ondoan dago, zelai batetan.**
**Historia : 1990eko Abenduaren 2an, Arantxa Lizarraldek eta Luis Millanek aurkitu zuten. Ez da Indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Círculo de piedras de 4 metros de diámetro y con un túmulo de 0,30 de alto. Formado por muchas piedras, todas pequeñas. En el centro se aprecia cavidad.
Material : Cuarzo blanco.
Estado : Sin señalizar. Las piedras aparecen limpias.
Ubicación: junto a la cima más alta del cordal de Aizalegi o Meatxeta, en un rellano.
Historia: Encontrado por Arantza Lizarralde y Luis Millan el 2 de Diciembre de 1990. No se conoce excavación.

**AIZALEGI-GOIZAMENDIKO HARRESPILA – CROMLECH** **132**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.
**Goi** / Altitud : 715 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin – Hierro

**Deskribapena: Mukurua 8 m. diametro eta 0,40 garai da. Biribila 16 harrik osaturik, guztiak zutik. Haundienen neurriak : 0,69 garai ,0,35 zabal eta 0,22 lodi / 0,73 x 0,30-0,35 x 0,18 / 0,55 x 0,52 x 0,15 / 0,19 x 0,35 x 0,10 / 0,24 x 0,46 x 0,12. J. M. Barandiaranek 1949. urtean harririk garaiena 0,75m. luze, 0,30 zabal eta 0,20 lodi neurtzen du. Seguraski, egun pitat estaliagoa agertzen da.**
**Harri mota : Bertako hareazkoak.**
**Egoera : Ona, ondoan trintxera bat izan dela kontutan hartuta. Belar finez estalia. Seinalizatu gabe.**
**Kokapena: Aizalegi edo Meatxeta bizkarreko tontor txiki baten ondoan. Hona iristeko, Gorramendiko errepideko 3. kilometrora ailegatu aitzin, ezkerreko pista zabaletik 1 km egin eta, Antsastegiko lepoan, ezkerretik 150 mt igo, bizkarrez bizkar.**
**Historia : On Jose Migel Barandiaranek aurkitu zuen. Berak erran zuen bezala leku honi Goizamendi eta Meatzeta ere deitzen zaio; 1746ko agiri batean erraten da (pliego 110, orri 2) "Artilleríacomunoa que es junto al paraje donde se saca la mena para la herrería de Baztan". Honek erakusten du lehenago mehatze-tokia bazela eta gero Gerra batean artilleria paratzeko erabilia izana dela, oraino agerian dagozte hango trintxerak. Neurriak 2000. urtean hartuak. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Cromlech de 8 metros de diámetro y 0,40 de altura en su túmulo, formado por 16 ortostatos a la vista. Las mayores miden: 0,69 metros de alto, 0,35 de ancho y 0,22 de grosor / 0,73 x 0,30-0,35 x 0,18 / 0,55 x 0,52 x 0,15 / 0,19 x 0,35 x 0,10 / 0,24 x 0,46 x 0,12. En 1949 J. M. Barandiaran mide la piedra mayor como 0,75 de alto, 0,30 de ancho y 0,20 de grosor. Es posible que ahora esté más cubierta.
Material : Areniscas.
Estado : Bueno, teniendo en cuenta que al lado tuvo una trinchera. Cubierto por fina hierba y sin señalizar.
Ubicación : Se encuentra junto a una pequeña cima del cordal de Meatxeta o Aizalegi, al que se llega por la carretera a Gorramendi, girando a la izquierda antes del km. 3. Tras 1 km de ancha pista, en el collado de Antsastegi, ascender a la izquierda siguiendo el cordal durante 150 mt.
Historia : Encontrado por Jose Migel Barandiaran. Según datos recogidos por él, sabemos que este lugar se llama también Goizamendi o Meatzeta, y según documento de 1746 (pliego 110, pag. 2), “Artilleriako munoa, que es junto al paraje donde se saca la mena para la herreria de Baztan”, indicando que el paraje fue lugar minero y posteriormente emplazamiento de artillería militar, como muestran también las trincheras existentes. Medidas tomadas en el año 2000. No se conoce excavación.

Bibliografia :
Barandiaran J.M. Crónica de prehistória. Ikuska.........1949.
Ondarra F. Nuevos monum......1976.
Ripa P. Monumentos megal......1990.

## Sektorea – Sector 5 ITZULEGI - GORRAMENDI -BARDAKOMENDI

**Megalitotegi honetan Burdin Aroko megalitoen nagusitasuna nabari da. Bertan 27 harrespil, 2 mukuru eta 11 monolito aurkituko dugu; halaxe, Bardakomendi-Alkatxuriko 15 megalito trikuharri bezala argitaratu bada ere, jakin badakigu beraietako batzuetan egin ziren indusketetan Burdin Aroko errausketen aztarnak ageri zirela.**

El predominio de los megalitos de la Edad del Hierro es evidente en este sector. En él se encuentran 27 círculos de piedras, 2 túmulos y 11 monolitos; en el caso de los 15 megalitos del sector de Bardakomendi-Alkatxuri, publicados como dólmenes, sabemos que en las excavaciones que se efectuaron en algunos de ellos aparecieron restos de incineración de la Edad del Hierro.

**MAISTRUGAINGO HARRESPILAK - CROMLECHS. 166-183**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Erratzu.
**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj. 2º 14' 28", Latit. 43º 12' 14".
**Goi** / Altitud : 955 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Edad del Hierro.

**Deskribapena : 19 harribaratzez osaturiko taldea, bat zalantzakoa.**
**Harri mota : Bertako hareazkoak.**
**Egoera : Ona. Seinalizatu gabe. Belarrez estalirk. Berriki norbaitek bortz harrespilen inguruko harriak garbitu ditu. II.aren erditik xendak iragaten dira. 2003 urteko udan, I. harrespilaren erdian, norbaitek sua egin zuen, bertan ikatz puxkak eta garrak haizetik babesteko ezarritako harriak utziz.**
**Kokapena : Maistrugaingo bizkar zabal eta belartsuan, Aizpitza mendiko ipar magalean. Bertara iristeko, Gorramendiko errepideko 9,5. km-tik, ezkerrera 100 m. igo, bertako leporaino.**
**Historia: Lehenbiziko seiak Aita Ondarrak aurkituak 1972ko azaroaren 4an ; eta Luis Millan eta Luis del Barrioren laguntzarekin VII, XII eta XIII, 1988ko Urriak 15ean. Itziar Zabaltzak eta Josu Cabodevillak 2002ean VIII, XIX eta XIV, eta gainontzekoak 2004ean. Beraiek denak neurtu zituzten.**

Descripción : Estación formada por 19 círculos, uno de ellos dudoso.
Material : Areniscas del lugar.
Estado : Bueno. Sin señalizar. Cubiertos por la hierba, aunque alguien se ha dedicado a quitar la capa vegetal de alrededor de los ortostatos de algunos de ellos. Una senda cruza por la mitad el II. A primeros de verano de 2003 alguien hizo fuego en el centro del cromlech I, dejando restos de hoguera y piedras.
Ubicación : En el amplio y herboso cordal de Maistrugain, en la ladera norte de Aizpitza. Se llega desde el km 9,5 de la carretera a Gorramendi, ascendiendo 100 mts a la izquierda, hasta el collado.
Historia : Los 6 primeros encontrados en 1972 por Aita Ondarra, quien en 1988 halló el VII, XII y XIII acompañado de Luis Millan y Luis del Barrio. Itziar Zabaltza y Josu Cabodevilla el VIII, IX y XIV en 2002; en el 2004, el resto. Estos últimos tomaron las medidas de todos.

Bibliografia :
Ondarra F. Nuevos monum.....1975.
Vegas Aramburu I. Estudios de ar....1988
Ripa P. Monumentos meg.........1990.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech I** **166**

**Zortzi metro diametro duen biribila, tumulua 0,20 m garai eta 8 harriekin osatua. Haundiena 0,35 garai, 0,85 luze eta 0,08 lodi da.**

Círculo de 8 metros de diámetro y altura del túmulo de 0,20 m. Formado por 8 ortostatos, el mayor mide 0,35 metros de alto, 0,85 de largo y 0,08 de grosor.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech II.** **167**

**I-tik 8 metrora, Ipar-Iparsortalderuntz; 6 m. diametro du eta 0,70 garai, 8 harrik osatua. Haundiena 0,15 garai eta 0,50 luze da. Erdian harlauza bat lurrean finkatua eta makurturik agertzen da.**

A 8 metros del I hacia el Nor-Noreste, de 6 metros de diámetro y 0,70 de alto, formado por 8 piedras. La mayor mide 0,15 de alto y 0,50 de largo. En la zona central se ve una piedra hincada e inclinada.

**MAISTRUGAIN harrespila – cromlech III.** **168**

**II-tik 1,50 m. ra, Sortalderuntz. Biribila 5 m. diametro eta 0,20 garai da; 8 harrik osatua, haundiena 0,40 garai, 0,60 luze eta 0,10 lodi da.**

A 1,50 metros hacia el Este del II. Círculo de 5 metros de diámetro y 0,20 de alto. Formado por 8 ortostatos, el mayor de 0,40 metros de alto, 0,60 de largo y 0,10 de grosor.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech IV.** **169**

**II-tik 28 metrora, Ipar-Iparsortalderuntz. Biribila 9 m. diámetro eta 0,40 m. garai; 20 harrik osaturik, haundienak: 0,40 garai, 0,40 luze, 0,08 lodi / 0,35 x 0,65 x 0,05 / 0,30 x 0,90 x 0,08.**

A 28 metros del II, hacia el Nor-Noreste. De 9 metros de diámetro y 0,40 de alto. Formado por 20 piedras, las mayores de 0,40 de alto, 0,40 de largo y 0,08 de grosor / 0,35 x 0,65 x 0,05 / 0,30 x 0,90 x 0,08.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech V.** **170**

**IV-tik 1,50 metrora, Ipar sartalderantz. Biribila 9m. diametro eta 0,40 garai da; 9 harrik osatua, haundienen neurriak: 0,40 garai, 0,55 luze eta 0,06 lodi / 0,40 x 0,55 x 0,08.**

A 1,50 metros del IV,hacia el Noroeste. Círculo de 9 metros de diámetro y 0,40 de alto, formado por 9 ortostatos, los mayores de 0,40 de alto, 0,55 de largo y 0,06 de grosor / 0,40 x 0,55 x 0,08.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech VI.** **171**

**IV-tik metro betera, Ipar-Iparsortalderuntz, eta V-etik 8 metrora Iparsortaldetik. Biribila 6,50 m diametro eta 0,20 garai da ; 14 harrik osatua, gehienak erdikaldera makurtuta. Haundienak: 0,40 garai, 0,40 luze eta 0,08 lodi / 0,80 x 0,90 x 0,10 / 0,40 x 0,55 x 0,08.**

A un metro del IV por el Nor-Noreste y a 8 metros del V por el Este. Diámetro de 6,50 metros y 0,20 de altura. Formado por 14 ortostatos, inclinados hacia el interior, los mayores son de 0,40 metros de alto, 0,40 de largo y 0,08 de grosor / 0,80 x 0,90 x 0,10 / 0,40 x 0,55 x 0,08.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech VII. | 172 |
|---|---|

**I-tik 3 metrora, Hegoaldera buruz. Harrespila 5,50 m. diametro da eta mukurua 0,20 garai; 5 harri zutik ikusten dira, lurrean sarturik eta guti agertzen direla, horietarik hiru 0,40m. luze dira. Ipar eta Iparsortaldeko harriak galduak ditu; barnean, lau harri azaltzen dira.**

A 3 metros del I. hacia el Sur, es de 5,50 metros de diámetro y de 0,20 de alto. Formado por 5 piedras clavadas que sobresalen poco, siendo 3 de estas de 0,40 de largo. Tiene perdidas o cubiertas las piedras del Norte y Noreste, viéndose en el interior 4 piedras.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech VIII. | 173 |
|---|---|

**I-tik 20 metrora, hegoaldera buruz. Biribila 5 m. diametro eta 10 harrik osatua agertzen omen da. Mukururik ez eta erdi aldean 4 harri, lurretik guti agertzen; ez da sakongunerik ikusten. Hego sartaldeko harria 0,23 m. garai, 0,35 m. luze eta 0,09 m. lodi da. Hego sortaldekoa, 0,24 m. x 0,47 m. x 0,09 m. Bertzeak gutiago agertzen dira belar artean. Ipar aldeko harriak galduak edo estaliak daude.**

A 20 metros al Sur del I. Parece formado por 10 piedras y 5 metros de diámetro, sin túmulo aparente y sin depresión central, en el interior se ven otras 4 piedras que sobresalen poco. El ortostato del Suroeste mide 0,23 metros de alto, 0,35 de largo y 0,09 de grosor. El del Suereste es de 0,24 x 0,47 x 0,09. El resto sobresalen poco. Las piedras del Norte han desaparecido o se hallan cubiertas.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech IX. | 174 |
|---|---|

**VIII-tik 5 metrora, Sortaldera buruz. Belarrez estaliriko tumulu txikia, 3,50 m. diametro eta 0,30 garai iparraldean, eta 0,20 hegoan. Borobilean harri batzuk ikus daitezke eta mukuruan berean ere 8 harrixka agertzen dira. Erdian ez da zilorok ikusten.**

A 5 metros al Este del VIII. Túmulo pequeño cubierto de hierba de 3,50 metros de diámetro y 0,30 de alto en su parte Norte y 0,20 en el Sur. Se ven algunas piedras formando círculo y dentro de él aparecen otras 8. No se aprecia concavidad central.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech X. | 175 |
|---|---|

**II-tik metro gutira, iparsortalderantz. Harrespila 3 m. diametro da eta bere mukurua 0,30 m. garai, barnean zenbait harri agertzen delarik. Harri batzuk erradialki finkatuak eta biribila sortzen ikusten dira. Erdialdean, harlauza bat dago lurrean sarturik, zutik.**

A pocos metros del II. hacia el Noreste. Mide 3 metros de diámetro y su túmulo es de 0,30 de alto, con algunas piedras dentro. Las piedras que se ven formando el círculo son radiales. En el centro aparece una losa larga clavada en el suelo.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XI. | 176 |
|---|---|

**I-tik 3 metrora iparsortalderuntz, eta II-tik 2 metrora hegosartalderantz. Harrespila 3 m. diametro da; egun, bi harri txiki soilik agertzen dira lur gainean, lurrean finkaturik zutik eta elkarri begira, bakoitza zirkuluaren alde batean. Tumulua, 0,30 m. garai da eta erdian ez da sakongunerik ikusten.**

A 3 metros al Noreste del I. y a 2 metros al Suroeste del II. Círculo de 3 metros de diámetro y 0,30 de alto, en el que solo se ven dos piedras, enfrente al una de la otra en el borde del círculo. El túmulo es de 0,30 m. de alto y en el centro no se aprecia concavidad.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XII. Ekialde. | 177 |
|---|---|

**IV. eta V. harrespiletatik 100 metrora iparralderuntz, inguruko gunerik garaienean. Zirkulua 3,50 m. diametro da eta bere mukurua, 0,30 m. garai da ipar eta sortaldean eta 0,40 m. hego eta sartaldean. Sei harri ikusten dira, lurrean sarturik eta zutik guti agertuz. Mukuru barnean ere bertze lau zabal. Gehien ikusten direnak iparsartaldeko harriak dira. Erdian sakongunea badago.**

A 100 metros al Norte del IV y el V, en el punto más elevado del entorno. El círculo es de 3,50 metros de diámetro y su túmulo de 0,30 de altura en la parte Norte y Este y de 0,40 en la Sur y Oeste. En él se ven seis piedras clavadas que sobresalen poco y otras planas dentro del túmulo. La zona que mejor se ve es la Noreste. Se aprecia una concavidad en la zona central.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XIII. Mendebalde. | 178 |
|---|---|

**XII-tik 50 metrora, sartalderuntz. Borobila 3,50 diametro da eta 6 harri agertzen dira lurrean finkaturik zirkulua eratzen; Sortaldeko harriak ez dira ikusten. Erdian, 18 harriz inguraturik hilkutxa ikusten da, bere lau harlauxekin, denak xutik. Haundiena, iparsartaldekoa, 0,92 m. luze, 0,12 m. lodi eta 0,18 garai da; sartaldekoa 0,51 m. luze, 0,05 m. lodi eta 0,19 garai. Hilkutxako bertze harriak gutiago agertzen dira mukuruan.**

A unos 50 metros al Oeste del XII. Círculo de 3,50 metros de diámetro y 6 piedras visibles clavadas Alrededor; no se ven las del Este. En el centro rodeada de 18 piedras aparece la caja que guardaría las cenizas, compuesta por 4 losas: la mayor, la del Noroeste es de 0,92 metros de largo, 0,12 de grosor y 0,18 de alto; la del Oeste mide 0,51 metros de largo, 0,05 de grosor y 0,19 de alto. Las demás sobresalen menos en el túmulo.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XIV. Iparralde. | 179 |
|---|---|

**XII-tik 30 metrora iparralderuntz. Biribila egiten 5 harri ikus daitezke, lurrean finkaturik eta guti agertzen direla. Harrizko mukurua 5 m. diametro da, harri aunitz tumuluan, eta erdian sakongunea badu. Aski desitxuratua, 2005-ean norbaitek mukuruko harriekin ondoko mettattoak egin zituelako.**

A unos 30 metros al Norte del XII. Túmulo de 5 metros de diámetro y formado por piedras planas, aunque rodeándolo se pueden apreciar 5 piedras clavadas y se aprecia concavidad central. En mal estado ya que en 2005 alguien se dedicó a edificar pequeños montoncitos con las piedras planas del túmulo.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XV. | 180 |
|---|---|

**I-tik metro gutira, Sortaldean. Belarrez estaliriko biribil mukuruduna dugu hau, diametroa 3,50 eta 0,20 garai. Ia ezta harririk ikusten, bai berriz bere biribil eite guzia. Erdian ez da zilorik antzematen.**

A pocos metros al Este del I. Círculo tumular de 3,50 metros de diámetro y 0,20 de alto, cubierto de hierba. No se aprecia ninguna piedra, pero sí su forma circular. No se aprecia concavidad central.

| MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XVI. | 181 |
|---|---|

**XV-tik oso hurbil, Ekialderuntz. Borobila 3,50 metro diametro eta altura gutikoa, belarrez estalia. Harri ttipi bakar batzuk ikusten dira.**

Cercano al XV, hacia el Este. Círculo de 3,50 metros de diámetro que sobresale poco, cubierto de fina hierba. Sólo se ven algunas piedras pequeñas a su alrededor.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XVII.**

**Zalantzako harrespila, I-aren ondoan, Hegosartaldetik. Zenbait harrixka agertzen da biribila eratu nahiez, mukuru apala ere antzeman dakioke, 3 metro diametro edo gehixeago izanen zuen.**

Cromlech dudoso, al lado del I. al Suroeste. Formado por varias piedras y túmulo rebajado de unos 3 metros de diámetro.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XVIII. 182**

**XII-tik metro batzuetara aurkitzen da, Iparralderuntz, hori eta XIV artean. Gehien ikusten duena bere mukuru apala da eta bere hertzean bi harri xabal lurrean finkaturik.**

A unos metros al Norte del XII, entre éste y el XIV. Lo más apreciable es el túmulo circular y dos anchas piedras metidas en la tierra, en un lateral.

**MAISTRUGAIN harrespila - cromlech XIX. 183**

**XVIII eta XIV artean ikus daiteke. Sartaldean zenbait harri sarturik agertzen dira eta, apala bada ere, mukurua antzematen zaio. Hegoaldeko zatian harri luze polita erakusten du.**

Entre el XVIII y el XIV. En su parte Oeste se pueden ver algunas piedras clavadas y el túmulo es apreciable, aunque rebajado. En su parte Sur muestra una larga y bella piedra.

**MAISTRUGAIN HARRIBAKARRA - MENHIR TUMBADO. 184**

**Jabetza** / Propiedad: Baztan
**Goi** / Altitud :1.000 m.
**Aroa** / Epoca : Zehaztugabea. Sin determinar.

**Deskribapena: Etzanik dagoen monolitoa, Sortalde-sartalderuntz, 4 m luze eta agian luzeago izan daiteke, sortaldeko zati bat lurpean dago eta ez dugu neurtzen ahal; 1,02 m. zabal da oinean, sartaldean, 0,65 m. erdi aldean eta 0,37 buru aldean, ikusten den zatian; lodienean 0,38 m. da.**
**Harri mota : Hareazkoa. Gure ustez, zenbait metro garraiatua izan zen.**
**Kokapena : Iparraldeko harrespiletik 50 bat metrora, iparraldera buruz ganez, lepoko goiko zelaigunean eta bertako iturrietatik urrun.**
**Historia: Aspalditik ikusia, 2004ko udaberrian neurtua. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Monolito tumbado en orientación Este-Oeste de 4 m. de largo, tal vez más, pues la parte del Este aparece cubierta e impide medirla. Tiene 1,02 metros de ancho en la base, 0,65 en su zona media y 0,37 en la zona del Este. El grosor medido es de 0,38 metros.
Material : Arenisca del lugar. Creemos que tuvo que ser arrastrada unos cuantos metros.
Ubicación : a 50 metros al Norte de los cromlechs que están más al Norte de la estación. En el llano que se forma en la parte más elevada del collado y cercano a la fuente o regacho que allí existente.
Historia: Localizado hace años, datos tomados en primavera de 2004. No se conoce excavación.

**GORRAMENDIKO HARRESPILA - CROMLECH.** **189**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan. Erratzu.
**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj. 2º 14' 50", Latit. 43º 12' 23".
**Goi** / Altitud : 950 m.
**Aroa** / Epoca : Burdin. Hierro

**Deskribapena : Barne aldera makurtuta dagozten 12 harrik osaturiko biribila, 5,5 m. diametrokoa. Harri haundienen neurriak: 0,60 garai eta 0,40 luze / 0,50 x 0,70 / 0,50 x 0,50 / 0,40 x 0,90. Mukurua 0,40 m. eta erdian sakongune bat agertzen da.**
**Harri mota : Bertako harearria.**
**Egoera : Ona. Harriak garbi agertzen dira, erdiko ta inguruko aldea belarrak estaltzen du.**
**Kokapena: Gorramendiko errepidearen 10,3 km-an eskuin aldean 300 metrotara, beheiti. Zuhaitzik gabeko zelai batean; 300 m. beherago bada ardi borda bat, bere belagi hertsiarekin.**
**Historia : 1972 ko Azaroaren 4an, Aita Ondarrak aurkitu zuen. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Círculo de 12 piedras inclinadas al interior de 5,5 metros de diámetro y con túmulo de 0,40 metros de alto, con una cavidad en el centro. Las medidas de los ortostatos mayores son : 0,60 m. de alto por 0,40 de largo / 0,50 x 0,70 / 0,50 x 0,50 / 0,40 x 0,90.
Material : Areniscas del lugar.
Estado : Bueno. Las piedras aparecen limpias, con su interior y exterior cubiertos de fina hierba.
Ubicación : Por la carretera a Gorramendi, desde el km 10,3 descender a la derecha 300 metros. Rellano sin ningún arbolado; unos 300 mts más abajo existe una borda de ovejas, con prado cercado.
Historia : Encontrado por Aita Ondarra el 4 de Noviembre de 1975. No se conoce excavación.

Bibliografia : Ondarra F. Nuevos monumentos meg.....1975.
Ripa P. Monumentos megal........1990.

**GORRAMENDI ZUTARRIA - MENHIR.** **190**

**Jabetza** / Propiedad : Baztan.
**Koordenatuak** / Coordenadas : Lonj. 2º 14' 38", Latit. 43º 12' 33".
**Goi** / Altitud : 1040 m.
**Aroa** / Epoca : Zehaztugabea. Sin determinar.

**Deskribapena: Zutik dagoen harria, lurrean sarturik. Kanpoko aldetik garaiera 1,80 m. da, 1,30 zabal bataz bertze, zorrotzago goiko muturrean, eta 0,30-0,15 m. lodi; 190º tara orientatua dago.**
**Harri mota : Bertako hareazkoa.**
**Egoera: Ona. Harria aski garbia, lerden; ihiz inguratua. Seinalizatu gabe.**
**Kokapena: Gorramendiko errepidearen bukaeran, azken mendi honen eta Otanarte (Gereztegi) arteko lepotik gertu eta errepidetik metro gutira, ezker aldean.**
**Historia : Patxi Ripak eta Petete Sarobek "Rutas Montañeras. Baztan I" liburuan zutarri honen berri eman zuten; 1984 urtean Aita Ondarrak datuak hartu zituen. Ez da indusketarik ezagutzen.**

Descripción : Monolito erguido, clavado en el suelo. Altura exterior de 1,80 metros,1,30 de ancho, más afilado en su parte superior y 0,30-0,15 m de grosor; orientado a 190º.
Material : Arenisca del lugar.
Estado : Bueno. Piedra limpia. Rodeado de juncos. Sin señalizar.
Ubicación : Al final de la carretera a Gorramendi, junto al collado entre este monte y Otanarte (Gereztegi), a pocos metros a la izquierda de la carretera.
Historia : Encontrado por Patxi Ripa y Petete Sarobe, los cuales lo pusieron como portada del libro "Rutas Montañeras. Baztan I". A raiz de ello Aita Ondarra lo midió en 1984.

Bibliografia : Patxi Ripa,.. Rutas montañeras ....
Ondarra F. Edestiaurreko oroitarri berriak, 1990.
Ripa P. Monumentos megali. ... 1990.